

BALIOA

Hasteko, gure webgunea potentzial handiko proiektua dela esan behar dugu. Gainera, orain daukagun egoerarekin pertsonen arteko komunikazio aukerak modu nabarmenean murriztu dira. Horregatik, argi eta garbi merkatu-hobi berri bat ireki egin dela ikusi dugu.

Merkatu-hobi hori aukeratu eta aprobetxatu nahi dugu, gaur egungo ekonomian lehia-maila oso handia delako eta irekitzen den edozein ate edo lehio erabili behar dugu balioa sortzeko, horregatik gure proiektua zenbait faktore ditu balio hori sorarazteko.

Alde batetik, irakasleei ikasleekin konektatzen laguntzen dielako, modu honetan langabezian egoten diren denbora murrizten da, horrela administrazioaren finantzak babestus eta beraien bizi-ametsa betetzen laguntzen dugu eta hau oso baloratuta dago gaur egun, covid-aren egoeraren ondorioz.

Bestetik, liburuak saltzen dizkiogu ikasleei, horrela ez dute beste lekutan bilatu behar, ikaslearen bizitza erraztuz. Gainera gure liburuak bigarren eskukoak direnez merkeagoak izango dira, baina webgunea liburu saltzaleei kalitate minimo bat eskatuko die, bezeroen jasotzeko kalitatezko liburu baten eskubidea errespetatuz. Honi esker prozezu guztia gure webgunearen barne emango da, horrela bezeroek ez dira liatu behar web desberdinetan bilatzen. Horregatik, gure ustetan gure proiektua arrakasta handia izango du.

